


# “PEDRA EN SEC” IBILBIDEA

Tramuntana mendilerroa Balear Irltako mendikate nagusia da eta Mallorcako ipar-mendebaldeko kostaldetik paraleloan kokatuta dago. Izena norabide berean jotzen duen haizetik hartzen du. Berebiziko baserritar paisaia dela eta, Erdi Aroan jatorria duen sistema hidrauliko duna, UNESCOren munduko ondarea izendatua izan zen, 2011n. Mallorcako urtegi nagusia hantxe daude kokaturik, Cùber eta Gorg Blau bereziki.

Paisaiak artista asko liluratu zituen, Chopin, Unamuno, Anglada Camarasa edo Camilo José Cela barne. Mailaz maila landutako mendi-hegalak eta terraza sistema erabiliz sortutako laborantza ikusgarriak dira oso. Ur banaketa egiteko, edota beste eraikuntzak (paretak, harresiak, bideak, ikatza sortzeko guneak, karobiak, elurtegiak, eta abar) “pedra en sec” teknika erabili da, zeina harri landu hutsa darabil, kareore edo zementurik gabea. Geuk ikusitakoen artean Biniaraixko Haitzartea da lan egiteko modu arkaiko honen adibiderik gailena eta ikusgarriena.

## TESTU ETA ARGAZKIAK



**Jon I. Hueso Fernández**  
(Santurtzi, 1957)

Bilbon urte askoan bizi eta gero, gaur egun Zallan bizi den Deus-tuko Unibertsitatean Zuzenbidean lizentziaduna den Jo Huesok, batik bat penintsulako mendietan barna ibili izan da. Dolomitak, Atlas mendiak eta Karpatoe-tan ibilia da, baina Pirinioak eta Euskal Herriko mendiak ezagutzen ditu hobekien.

## TESTU ETA ARGAZKIAK



**Enrique Fernández Vieites**  
(Bilbo, 1957)

Mendiarekin berandu zaletu arren, ordudunik geldiezin dabil. Lorpenik handiena, Euskal Herriko Ehun Mendien Lehiaketako tontor guztiak igo izana du. Pirinio, Europako Mendi, Tramuntana eta Gredoseko mendietan ibilia da eta penintsulatik kanpo, Alpeak, Atlas, Karpatoak eta Dolomitak ezagutu izan ditu, baita Kilimanjaro tontorra ere.



Pedra en Sec ibilbidea seinale zuri-gorritz bazilatuta dago tarte nagusian, nahiz eta zati batzuk homologatu gabe dauden, kasu gehienetan jabego pribatuko diren etxe edo aziendetatik zeharkatzeko arazoengatik. 221 GRak, Consell de Mallorcak argitaratu duen gidaren arabera, 149,5 km seinalezatuak ditu, haietako 77 ibilbide nagusiari dagozkienak. Ibilbideak Port Andratx eta Port Pollença artean iragan du, Deià eta Pollensaren arteko tarteak hobekien seinalaturakoa delarik. Norabide arruntena Andratxetik Pollença izan ohi da; geuk, aurrerago azalduko diren babesleketan erreserbak egiteko izan genituen arazoengatik, kontrako norabidean osatu genuen, eta ez genuen osorik egin, Pollença eta Calviàren artekoa baizik.

### 1. TARTEA

**PALMA DE MALLORCA – POLLENÇA – SON AMER**  
**23 KM / 1200 M DESNIBEL + / 650 M DESNIBEL -**

Palma bus geltoki nagusian Pollença eramango gaituen garraioan abiatzen gara. Pollença herri ederra da eta bere alde zaharreko kale estuetatik noraezean ibiltzeak merezi duelakoan nago. Geuk herria goitik menderatzen duen basilazara daramaten harmailetatik gora ekiten diogu bideari, Pont Romá (izen bereko babeslekuaren ondoan dagoena) beranduago zeharkatzen dugula. Hemendik aurrera 221 GRaren seinaleztapen zehatza topatzen dugu, errepidearen ondotik (baina errepidetik ibili gabe) diharduena. Pollença utzi eta bi ordu beranduago, gorantz doan harrizko

mendi-bidea hartzen dugu, zurbeltz ederren artean. Bidexkak modu lasaian irabazten du altuera 570 metrora, 13 km betetzen ditugun artean, gutxi gora behera. Puntu honetan, eta Fondo de Mortix uharra zeharkatu ostean, Montanya izenez ezaguna den inguruan, Puig Tomir mendiaren igoerari ekiten diogu, ate metaliko baten ondoan, zeinak metro bateko lodiera “pedra en sec” duen harrizko paretaren (era ikusgarriaren mendi oinerraino igotzen dena) ixten duena.

Bidezidorrak harresiarekin paraleloan, beti gure ezkerrean, bideratzen gaitu. Ibilbidearen zehaztasun ezak, belar altu eta gogorrek nekeza eta deserosoa egiten digu igoera. Pas de Sa Paret ingurura heltzen garenean leundu





Beniarraix

egiten da eta belar txarrak desagertzen dira. Ipar-mendebalderantz goaz, hego-ekialde Tomir Ezproiaren ondotik pasa eta, beste ordu erdiko bidea eginez, Tomir mendiaren erpin

geodesikora heltzen gara. Pollença eta Alcúdia Badien ikuspegia zoragarria da.

Jaitsiera bide "arrunta"tik egiten dugu, hego-ekialde mendi magaletik iragaten dena eta

ondo mugarrituta eta margo gorriz seinalatuta dagoena. Katedun bi tarte laburretik pasatzen da, eskarmentu gutxikoentzat lagungarri gerta daitezkeenak, baina, oro har, beharrezkoak ez direnak. Hartxingadi batera heldu eta ertzetik ibiltzen gara, altuerarik galdu gabe eta Benifaldó ur instalakuntzetara bidezidor eroso batetik jaisten gara. Guztira, igoera-jaitsierak 3 ordu eta erdiko tartea izan du. Hemendik egiteko bakarra Son Amer (Lluc) babeslekura joatea dugu, 221 GR bidetik. Babeslekua egoki hornituta dago eta ez da oso zaharra.

## 2. TARTEA


**SON AMER BABESLEKUTIK CÚBER URTEGIRA**  
**18,2 KM / 1100 M DESNIBEL + / 900 M DESNIBEL -**

550 metrora dagoen Son Amer babeslekuan gosaldu eta gero, 221 GRtik Lluc Monastegiraino jaitsi eta bisitatu egiten dugu (Katalandar kulturaren ikonoetako bat dugu). Hemendik gorantz egiten dugu, poliki-poliki, harrizko bide batetik eta artadi eder batetik barne. Ordubete beranduago, Ma-10 errepedea zeharkatzen dugu eta, orain era nabarian, gorantz segi oso ederra den harrizko bidezidor batetik, irlako artisauek (marger) eskuz

Port de Siller







Cúber

egina. Modu honetan Son Massip aldea atzera uzten dugu. 1000 metrora heltzen gara, bide polita eta jostalaria egin ondoren.

Bideak Puig D'en Galileutik hurbil pasatzen da baina ez dugu igotzen; ordez, mendi honek eta Massanella mendiaren artean sortutako haranera jaisten gara, berriro gorantz egiteko Massanella harkaitzaren oinarriraino. Behetik ikusita menderaezina dirudi. Honaino 4 orduko bidea izan da, gutxi gora behera. Pedra en Sec bidea alboratu eta mendia hego-sartaldetik inguratzen duen ongi markatutako bidexkatik abiatzen gara. Ehunka metro batzuk beranduago ipar-sartaldierantz ekiten dugu

ederra eta atsegina den Massanella mendiaren gailurreraino. Irla osoaren eta mendi nabarmenen ikuspegia eskaintzen digu.

Atzera egiten dugu, bide beretik GRa berriz topatu arte, desbideratu ginenetik 2 ordu pasa direla. Hemendik aurrera nabarmen markatuta dagoen bidetik Tossals Verds mendiaren magaleraino segitzen dugu. Puntu honetatik, Tossals Verds izeneko babeslekura, ordubeteko distantzia dagoena, abiatzea da erabakirik egokiena. Gure kasuan ez da posible izan tokirik gabe gelditu ginelako, eta, ondorioz, Cúber urtegiraino jarraitu egiten dugu. Cúberen bus geltokia dago (354 zenbakiduna), zeinetatik busa egunean

birritan pasatzen den eta Sòller eta Lluc arteko ibilbidea osatzen duena. Beste aukera bat taxia erabiltzea da, 35 euroen truke. Muleta babeslekua sekulako ingurunean kokaturik dago, Cap Gros itsasargiaren ondoan. Bertatik ikusi genuen eguzki ezkutatzat ahaztezina!

### 3. TARTEA

**CÚBER – PUIG MAJOR – BINIARAIX – SÒLLER – PORT DE SÒLLER**

**37 KM / 1000 M DESNIBEL + / 1600 M DESNIBEL -**

Muletara jaisteko erabilgarri diren bi aukeretako bat erabiliz, taxia ala busa, Cúber urtegiraino Muletatik abiatzen gara. Ma-10



errepidearen 37,7 puntu kilometrikora, Larg Tunelaren ondoan dagoen begiratokitik parean dagoenera joan behar da. Puig Majore-rako igoera hortxe bertan hasten da. Bidezi-dorrrak baso bat zeharkatzen du, guk geuk mugarriz dugularik, erreka lehor bat beranduago zeharkatzeko. Errekatik paraleloan segitzen dugu, Son Torrella mendilerroaren pareten azpian. Tarte honetan bidea zuzen markatuta dago (zedarriak) eta elur-zulo baten ondotik pasatzen da Coma de n'Arbonatik sigi-sagan igotzen delarik.

Mendi ganean dagoen instalazio militarre-ra doan errepidera ailegatzen gara. Zeharka-

tzea debekatzen duten kartelak eta alanbrezko hesia agerian daude, baina, aspaldi egindako zuloan profitatuz, geuk aurrera egiten dugu, geure ibilbidea eten dazaekenik militarrekin topo ez egiteko itxaropenaz. Zori ona gure alde, instalazio militarren parera heltzen gara sartu gabe. Ohitura bilakatu den argazki zere- monia bete eta berehala atzera egiten dugu, bide beretik, Cüber urtegiraino.

Urtegiaren (Mallorcak behar duen ur kopuruaren zati garrantzitsua hornitzen du) ertzetik ibiltzen gara, eskuin aldetik, Cüber babesleku ikusten dugularik. Babesleku hau gau pasatzeko erabil daiteke beharrezkoa baltiz, baina ez dago zainduta eta erreserbatu egin behar da; 6 pertsonentzako edukiera du.

L'Ofre muinora ordubeteko martxa eginda, zeinean burdinazko gurutze handia agertzen den, heltzen gara. Hemendik aurrera etengabe- beko jaitsiera izango da, eta berehala topatzen dugun gune gizatiartua pasatuta Biniaraix Sakanean sartzen gara, toki eder eta miresgarrian. Bertan arbasoek egindako lan esker- gerga, erraldoia, paregabea da, eta, ondorioz, Unescok giza ondarea izendatu zuen. Hain kontrako eta harritsu den inguruan bizimodu- dua aurrera eramateko onura lortu duten harrigarria da. Ehun urte baino zaharragoak diren olibondo eta algarroboak hazten diren toki sinestezinetan eskuz erakitako zapaldak.

GR 221 ibilbideak markatzen duen jaitsiera entretenigarria da oso beraz, eta halan, Biniaraixera aspertu gabe heltzen gara. Hemen

#### Refugi de Muleta

lurra esker onekoa eta emankorragoa da. Au- rrrerago Binibassi eta Söller. Bidea laburtzeko aukera dago, GR 221 bazterrean utzita, baina merezi du segitzeak, ortuak eta lorategiak goieneko aldian daudenean batez ere. Gaur- ko etapa, arestian aipatu dugunez, Muleta babeslekuan amaitu beharko genuke, baina, erreserba arazoak direla eta, Port Söllereko hotel batean lo egin dugu. Mediterraneoren hurbiltasuna eta epeltasuna profitatuz bainu azkarra baina goxoa hartu dugu.

#### 4. TARTEA

##### PORT SÖLLER - DEIÀ - VALDEMOSSA

27 KM / 1500 M DESNIBEL + / 1100 M DESNIBEL -

Muletatik izan beharko lukeen irteera Port Sölleretik egiten dugu. Itsas mailatik abiatzen gara eta berehala bidegurutze batekin egi- ten dugu topo, Muleta babeslekurantz edo Deiàrantz; bigarrena aukeratzen dugu asfal- tozko zati batean. Prohom gazteluaren pare- ra ailegatzen gara, zeinak oso ondo zainduta eta mantendua dagoen eta ikuspegi ederra eskaintzen duen. Asfaltozko tarte bat berriro Deiàko kalaraino eta handik (bi aukera daude) hurbil dagoen Can Boi babeslekuraino igotzen gara. Deià herri ederra da inondik ere. Lau ordu behar izan ditugu honaino.

Berez, honaino izan behar zuen Pedra En Sec ibilbidearen etapa bat, baina geuri labu- rregia irudituz zitzaigunez luzatu egin dugu. Hemendik aurrera Consell Baleren babesto- kirik ez dagoela esan beharra dugu momentu





honetan, eta batere merke ez diren hotel eta pentsioetan lo egiteko beharra izan dugu.

Can Boitik irteera errepidetik egiten da, Els Moli urbanizazioan. Hurrengo tartea nahasi samarra da; errepidetik segi behar dugu goien dauden txaletetaraino, baina berehala seinale eta zedariak agertuko zaizkigu. GR 221k duen primerako seinaleztapena tarte honetan, homologatu gabe dagoelako; hala ere zedariak galtzeko beldurrik gabe gidatzen gaituzte. Bidezidorrak bazter utzitako eta sastrakaz zikin dauden zapaldetatik egiten du gora. 500 metroko altueran eder eta ikusgarria den tarte bati ekiten diogu, arte baso baten zehar aldapa oso pikoan eta Son Rullan eta Sa Reganota harkaitz azpira garamatzana. Bide ederrak harkaitzari modu garbian izkin egiten dio eta ordeka batean agertzen gara, handik gaurko hurrengo helburua ikusten dugularik, Puig Teix hain zuzen ere. Beste hiru ordu gehitu dizkiogu ibilbideari, bazkari lege barne, Deiàtik abiatu ginenetik.

Puig Teixerrantz abiatzeko GRa bazter uzten dugu eta harriztatutako bide batetik goaz, mendi aldera. Zedari erraldoia dagoen puntuan harriztatutako bidea baztertu egin behar dugu eta seinaleztatutako bidexkatik aurrera egiten dugu, beti ere mendi gainera hurreraturaz. Bidea zeharkatzea debekatuta dagoela adierazten duen kartela topatzen dugu, irla honetan hain ugariak diren horietako bat; debekuari muzin egiten diogu eta puntu geodesiko batez koroatuta dagoen Puig Teix gainditzen dugu. Paisaia paregabea da, alde guztietatik. Atzera egiten dugu, harriztatutako bidexka berriro hartzeko eta jaitsiera pikoari

ekiten diogu, babesleku batetaraino; handik aurrera ibilgailu berezientzako erabilgarri den pista batetik segitzen dugu ondo zainduta eta ikusgarria den Valdemossa herriraino. Chopin poloniar musikalaria garai baten hemen bizi izan zen.

### 5. TARTEA

VALDEMOSSA – ESPORLES – BANYALBUFAR – ESTELLENCES

27 KM / 1100 M DESNIBEL + / 1300 M DESNIBEL -

Haxe dugu gailurrik zapalduko ez dugun etapa bakarra. Zailtasun berezirik ez duen arren Valldemossatin irteerakoan bide zuzena topatzeko traba batzuk izaten ditugu. Homologatu gabe dagoen GRren tarte batean gaudela gogorarazten dizuegu. Hala ere badago zedari kopuru nahikoa eta nabarmena, eta haiei jarraikiz lepo bat gainditu eta gero, Esporles herrira heltzen gara. Esporlesetik, Banyalbufarantz abiatzen gara, GR 221 seinaleak berriro agerian ditugularik. Mendi koxkor bat gainditzeko dugu herrira jaitsi baino lehenago, kostaldetik hurbil dauden zapalda ederren artean.

Estellencsera heltzea falta zaigu soilik. Lehenik ere topatu eta aipatu ditugun jabego pribatuen lur sailak direla eta ibilbideak tarte luze bate ematen du Ma-10 errepidetik (trafiko nabariarekin). Beraz, jabego publikoko Planicie izeneko lursailera heldu arte, errepidetik joateko beharra dugu. Errepideari segika, Estellencs ikusmiran agertzen zaigu. Errepideak asfaltoa utzi eta, poliki-poliki, bidexka batetik herrira jaisten da, ekialdetik.

Nekatuta gaude, izerditsu eta beroa eta asfaltoaren eraginez oinak erreta ditugu, eta ho-



### Galatzo



rretarako tratamendurik onena Estellencseko kalan bainu goxoa hartzea dugu. Ez da bereziki toki ederra baina bai lasaia eta freskatzeko eta lasaitzeko oso egokia. Kontutan hartu behar da kalara heltzeko 2 km behera eta beste horrenbeste gora egin behar izan dugula; mezezi du baina. Gaua Estellencsen pasa dugu.

### 6. TARTEA

ESTELLENCES – PUIG GALATZÒ – GALILEA – PUIGPUNYENT – CALVIÀ

23 KM / 1200 M DESNIBEL + / 1200 M DESNIBEL -

Pedra En Sec ibilbideari jarraituko bagenio Sant Elm eta Port Andratxerantz segitzea



Puig Teix

litzateke, baina geuk Calviàrako aukera hobesten dugu, modu honetan irlako mendirik nabarmenatariko bat, Galatzò hain zuzen ere, gaindituko dugularik.

Estellencsetik abiatuta errepideari jarraitzen diogu 3 km bitarte gutxi gora behera. Ezaguna dugun Ma-10 errepidearen 97 km-an asfaltoa bazterrean uzten dugu eta GRa-ren sahiesbide bati ekin, piknik gune batera hurbilduko gaituen pista batetik. Gune horretan bidexka biderkatzen da eta geuk aukera laburrena eta ezkutuen hartzen dugu. Berehala, Pas de Casiaen, seinale poste batez topo egiten dugu, zeinak Es Capdellarantz norabi-

dea erakusten digun; geuk muzin egiten diogu eta Pas de Na Sabateraino gorantz egiten dugu, non beste ibilbidearekin bat egiten dugun. Handik gutxira Puigpunyentetik datorren bidexkarekin bat egiten dugu. Gorantz segitzen dugu, markatutako bidezidorretik, Galatzòrains heldu arte. Irlaren mendebaldeko kostaldearen ikuspegi zoragarria dugu agerian.

Galilearantz jaisten den bidexkari ekiten diogu, zedarrak bitartez nahiko argi adierazitako bidetik (gune karstikoa da oso), hegoalderantz beti. Ibiltzea deserosoa da, traketsa, arriskuri gabeko "destrepe" txiki bat eta guzti.

Aurrerago zedarriek bi norabidetan erdibitzen dira, batek San Siniès trokara, Capdellarantz norabidean, egiten duena, eta besteak gailurretik, geroago ezkerretara biratzen, Fons del Pí sakanarantz, ekiten duena. Geuk bigarrena aukeratzen dugu. Fons del Pín pista zabal topatzen dugu, eta, aurrerago, Galilearaino eramango gaituen errepidea (heltzeko aukera bat baino gehiago dago). Ma-1032 errepidetik segitzen dugu, Puigpunyent norabidean, eta bi kilometro aurrerago GR 221aren homologatuta dagoen saihesbide bat hartzen dugu, Calviàrantz doana. Beste ordu eta erdi helmugaraino behar izan dugu.